



YERAY ALVAREZ CARMONA

ARETXABALETA LANBIDE
ESKOLAKo ikasle aretxabaletarra



GOIAZ! 2018

Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 17an eta 18an
Kulturaten, Arrasaten

  [goiazdebagoiena](#)



DEBAGOIENERAKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurunekeo
eta Lurralde Orekako Departamentua

DEBAGOIENERAKO LANBIDE HEZIKETAKO **ESPERIENTZIAK**

IKASKETAK:

Soldadura eta Galdaragintza erdi-mailako heziketa zikloa bukatuta.

GAUR EGUN:

Eraikuntza Metalikoak goi-mailako zikloa ikasten (2. mailan) eta Talleres Zubikuan Dual sistemaren bitartez lanean.

Nola heldu zinen Lanbide Heziketara?

DBHtik zuzenean joan nintzen erdi-mailako Soldadura eta Galdaragintza ikastera. Tailerreko zerbait ikasi nahi nuen, praktikoa, hori gustatzen zait. Batxilergoa zaila ikusten nuen orduan.

Nolatan aukeratu zenuen Soldadura eta Galdaragintza?

Lagunekin txapuzak-eta egiten nituen, eta fabrikazio mekanikoaren arloan hori gustatzen zitzaidan.

Erdi-mailako zikloa bukatuta, goi-mailako zikloarekin jarraitzea erabaki zenuen ondoren.

Bai. Familia berekoa den Metal Eraikuntzak goi-mailako zikloa bukatzen ari naiz orain. Dual sistemaren bitartez egin dut, eta horregatik daramat bigarren kurtso hasieratik Zubikua tailerrean lanean. Bigarren mailan, astean bi egunetan lanera etorri naiz, eta orain, praktikaldian, egunero enpresan.

Zer moduz enpresako esperientzia?

Gustura nabil, lankideekin ondo

moldatu naiz. Makina handientzako estruktura eta pieza egiten ditugu; plana hartu eta materiala neurritara ebaki, plegatu, soldatu...

Ze onura ditu Dual sistemak?

Lantegian gehiago ikasten da, eginez ikasten delako. Hori ez da eskoletan ikasten. Gainera, soldata bat ere jasotzen dugu, eta hori ondo etortzen da beti.

Eta hori bukatutakoan, ze asmo daukazu?

Unibertsitatean Ingeniaritza Mekatronikoa ikasten hasteko asmoa daukat. Lehenengo urtea gogorra izango da, baina ahalegina eginda lortu daitekeela esan didate. Gainera, nik ditudan ikasketekin, hiru urte izango dira; urte bat konbalidatzen didate eta azken bi urteak Dual sistemarekin egingo ditut.

Lanarekin bateratuko duzu?

Ez dut uste. Aukera eman didate Zubikuan lanean jarraitzeko, baina ikasketetan zentratuko naiz.